

GARDENTASUN ATARIA

1. SARRERA

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasun, informazio publikoa lortu eta behar bezala gobernatzeari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehenengo Tituluko xedapenak honako merkataritza-sozietateei aplikatuko zaizkie: sozietatearen kapitalean herri-administrazioen edo beste herri-erakunde batzuen partaidetza, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 50etik gorakoa duten horiei.

UROLA GARAIKO GARAPENERAKO AGENTZIA, S.A.U. (aurrerantzean, UGGASA) UROLA GARAIA MANKOMUNITATEAK osatzen duen erakundea da eta bere titulartasuna sozietatearen kapitalaren %100 da. Halaber, Urola Garaiko Mankomunitatea eskualdeko lau udalek (Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga) osatutako Administrazio publikoa da. Ondorioz, UGGASArri Legea aplikagarria zaio.

2. ERAKUNDEA, ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA INFORMAZIOA

2.1. UGGASaren funtzioak

Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, S.A.U. Urola Garaia Mankomunitateak (Ezki, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalek), 1.994. urtean sortutako Garapen Sozioekonomikorako Agentzia da. Kapital publikoa duen erakundea, irabazi asmorik gabekoa eta interes orokorreko jarduerak bultzatzen dituena. Honakoak dira agentziaren funtzio nagusiak:

UROLA GARAIKO LEHIAKORTASUN PLANAREN (LEUG 2018-2021)
DINAMIZAZIO ETA FAZILITAZIOA

SEKTORE EKONOMIKO ESTRATEGIKOEI BULTZADA

ENPRESA GARAPENA

EKINTZAILETZAREN SUSTAPENA

ENPLEGUAREN SUSTAPENA, BITARTEKOTZA ETA ORIENTAZIOA

GARAPEN IRAUNKORRA

TURISMOAREN DINAMIZAZIOA

2.2. Araudi aplikagarria

UGGASA erakunde bakarreko sozietate anonimoa da eta, nagusiki Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuek nahiz Kapital Sozietateei buruzko legeak, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoak, xedatutakoaren arabera arautzen da.

Kontratazioaren arloan, Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, S.A.U-ri Sektore Publikoaren kontratuei buruzko Legea, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutakoa, aplikagarria zaio, 3.1.d artikuluan xedatutakoarekin bat.

Kontratuak esleitzearen eremuan, UGGASAk herri-administrazioaren izaera ez duen esleipen ahalmena duenez, Sektore Publikoaren kontratuei buruzko Legearen barruan III. Liburuko I. Tituluari dagokion II. Kapitulua aplikatuko zaio.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat, UGGASAk sinatzen dituen kontratuak, herri-administrazioarekin egindakoak izan ezik,

kontratu pribatuak dira eta ondorioei eta iraugitzeari dagokienez, Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu.

2.3. Antolaketa - Egitura

UGGASAk honako gobernu organoak ditu:

A) **BATZAR OROKORRA:** Urola Garaiko Mankomunitateko ordezkariak.

B) **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA:** Batzar Orokorrak lau urtean behin izendatutako 4 udaletxeetako ordezkariak osatua dago.


2019 – 2023 LEGEALDIA (Izendatu Gabe)
2019ko Ekainean indarrean:

KOLDOBIKE OLABIDE HUELGA	Lehendakaria
ANTZINE BIAIN	Lehendakari-ordea
MIKEL SERRANO APERRIBAY	Idazkaria
JON LUQUI ALBISUA	Bokala
JOSEBA ETXEZARRETA ESTALA	Bokala
UNAI ORBEGOZO URIBESALGO	Bokala
OIHANE ZABALETA MUJICA	Bokala
JAVIER IRAETA ALVAREZ	Bokala
ROSA MAIZA GARRIDO	Bokala
RICARDO LOZANO LANDART	Bokala

C) ZUZENDARITZA:

Aipatutako organo kolegiatuz gain, sozietateak zuzendari-gerentea du eta kargua Itziar Salaberria San Vicentek betetzen du 2004. urtea geroztik. Zuzendaritza funtzioetan hasi aurretik, Ekintzailera eta Enpresa teknikari izan zen UGGASAn bertan (2002-2004). EHUn Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua da eta Staffordshire Universityn nazioarteko industria marketinean masterra du. UGGASARA heldu baino lehen, 4 urtez Enpresa Kudeaketa eta Estrategia Aholkularitza lanetan aritu zen.

Zuzendaritzapean honako arduradun eta teknikariak aurkitzen dira:



3. ERAKUNDEA, ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA INFORMAZIOA

3.1. Kontratuak (2019/01 – 2019/06)

A) ZUZENEKO ESLEIPENA (15.000 eurotik beherako kopuru metatuak, BEZ kanpo).

600 Beste enpresek burututako lanak	168.711,37 €
621 Alokairuak	684,06 €
622 Konponketa eta mantenuak	1.631,33 €
623 Zerbitzu profesional independenteak	7.813,86 €
624 Garraioak	-
625 Aseguruak	-
626 Banku Zerbitzuak	59,26 €
627 Publizitatea	320,00 €
628 Hornikuntzak	-
629 Beste Zerbitzuzak	14.355,51 €
GUZTIRA	193.575,39 €

B) PROZEDURA IREKIA (15.000 eurotik gorako kopuru metatutak, BEZ kanpo). Epealdi honetan ez dira egon.

ESLEIPEDUNA	XEDEA	EPEA	KOPURUA
-	-	-	-

3.2. Hitzarmenak (2019/01 – 2019/06)

NOREKIN	XEDEA	EPEA	KOPURUA (BEZ kanpo)
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	ESKUALDEKO ENERGIA PLANA BULTZATZEKO	2019/03/28-2020/01/30	50.000€

3.3. Emandako Dirulaguntzak (2019/01 – 2019/06)

UGGASAk ez du diru laguntzarik eman epealdi horretan.

3.4. 2019 Ekitaldeko Aurrekontua

A) GASTUAK ARLOAREN ARABERAN

GASTUAK	2019 Aurrekontua	2018 Aurrekontua	Aldea
1. ENPRESA GARAPENA ETA EKINTZAILAZA	306.345,19 €	282.831,54 €	+16,3 %
2. ENPREGUA ETA FORMAKUNTZA	227.810,77 €	153.393,84 €	+48,5 %
3. TURISMO SUSTAPENA	160.449,60 €	166.144,79 €	-3,4 %
4. BERDINTASUNA	91.500,00 €	80.586,51 €	+13,5 %
5. JASANGARRITASUNA	177.959,03 €	168.865,90 €	5,4 %
6. BESTE GASTU BATZUK	15.500,00 €	15.500,00 €	-
7. ZERGA GERORATUAREN GASTUA	11.123,17 €	8.917,62 €	+24,7%
GUZTIRA	990.687,77 €	876.240,19 €	+13,1 %

B) SARRERAK JATORRIAREN ARABERAN

SARRERAK	2019 Aurrekontua	2018 Aurrekontua	Aldea
1. UROLA GARAIA UDAL-ELKARTEA	269.000,00 €	269.000,00 €	-
2. BESTE ZERBITZU MANKOMUNATUAK	230.150,00 €	206.461,30 €	+11,5 %
3. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	288.577,15 €	209.610,59 €	+ 37,7 %
4. EUSKO JAULARITZA	162.216,05 €	138.426,00 €	+ 17,2 %
5. EUROPEAR FUNTSA	28.672,64 €	41.752,30 €	-31,3 %
6. JARDUERARENGATIK SARRERAK	12.071,94 €	11.000,00 €	+9,7 %
GUZTIRA	990.687,77 €	876.240,19 €	+13,1 %

C) GALDU IRABAZIEN KONTUAREN AURREIKUSPENA

1. Negozio zifraren zenbateko garbia	242.221,92 €
Zerbitzuak ematea	242.221,92 €
4. Hornikuntzak	
Beste enpresek burututako lanak	(329.482,39) €
5. Ustiapeneko beste sarrerak	711.309,11 €
Zuzeneko Dirulaguntzak	711.309,11 €
6. Pertsonal Gastuak	(561.587,76) €
Soldatak	(428.981,11) €
Gizarte Segurantza	(132.606,65) €
7. Ustiapeneko beste gastuak	(50.000,00) €
8. Amortazioa	(38.500,00) €
Ibilgetuaren amortizazioa	(38.500,00) €
9. Kapitaleko dirulaguntzen inputazioa	37.156,74 €
USTIAPENeko EMAITZA	11.117,62 €
14. Sarrera Finantzarioak	- €
15. Gastu Finantzarioak	- €
ZERGA AURREKO EMAITZA	11.117,62 €
20. Mozkinen gaineko Zerga	11.117,62 €
Zerga Arrunta	8.917,62 €
Mozkinen gaineko zergan doikuntza negatiboak	2.200,00 €
EKITALDIKO EMAITZA	0 €

4. 2018. URTEKO KONTUAK ETA IKUSKARITZA TXOSTENAK

Ikusi web gunean GARDENTASUNAREN ATARIAn atxikitako Urteko kontuak eta Memoria.